



Besoitaiturria (-a) *etxebizitza*

Aldaerak: Iturri
Ahozkoa: Itturri / Iturrikóa

*“... la casería Besoita-iturria...
se halla situada en el barrio ó
Cofradía de San Lorenzo de
la Anteiglesia de Berriz... mide
su planta ciento noventa y dos
metros cuadrados...”*
EA / Eskriturak



43° 11' 24"

2° 34' 25"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Baserri honen gainean topatutako lehen arrasto dokumentala 1818koa da, hots, *Besoita Iturria* (1818, BAHF, A341/13. or.). Dokumentazioan beti izen bera topatzen dugu, aldaera gutxirekin. Aldaketa nagusia *iturria* idazteko modua da: *i* latinoaz batzuetan eta *y* grekoaz besteetan. *Done Laurendi* (**Ikus Done Laurendi**) ermitatik ezkerretara kokatzen den etxe multzoaren parte bat da, eta beste guztiekin batera, *Besoita* auzunea sortzen du. Auzotarren artean ere, *Iturri* moduan ezagutzen da, ahozko formarik erabilienak *Itturri* edo *Iturrikóa* izanik.

XX. mendean aldaketa batzuk egin zituzten baserrian, leiho berriak zabaldu, hormigoizko balkoi luzea gehitu eta erdialde guztia luzitu. Baina jatorrizko baserria zaharragoa da. Atarteko

arkuaren arabera XVIII. mende amaierakoa izan badaiteke ere, ezkerraldeko leihoaren hegiko moldurak pare bat mende zaharragoa dirudi. Edozelan ere, etxea hiru gorputzetan antolatuta zegoen, ardatza atarteko arku bikaina izanik. Zaharrena ezkerraldekoa da eta zituen jatorrizko leihoak ere harlandu ederraz eginda zeuden, bai behekoa, bai goikoa ere, beranduago zabaldu eta desitxuratu zutena. Eskuma aldean, oster, bestearekin parekatu daitekeena beheko solairua da, kalitatezko harriaz egindakoa hau ere, hormetan, harlangaitza eta kantaletan, harlandua. Gainekoa egurrezko egituraduna da, gaur egun ere oraindik sumatu daitekeena. Teilatua bi isuritakoa dauka.

toponimia

Berrizen badira -ita amaiera duten leku izen asko eta Etxeita kasuan hasieran etxe egon daitekeela pentsa daitekeen arren beste batzuetan hasierako osagaia pertsona izen bat izan litekeela pentsa genezake. Hori balitz kasu honetan Beso edo antzeko zerbait izan genezake, baina datu gehiago beharko genuke zerbait ganoraz ondorioztatzeko. Kasu honetan izenaren bigarren osagaiak hain beharrezkoa den iturriarekin dago lotuta. Etxean horman dagoen txorota ireketzea besterik egiten ez duenak ezin du imajinatu zein lan handia zen ura etxera eroatea, bereziki hotz edo euria egiten zuean. Horregatik oso beharrezkoak ziren iturriak eta ahal dela ondoan eraiki behar ziren etxeak.